

Intxaurrondo

Familia motak haurrei ezagutarazten

Intxaurrondo ikastolak "Hau martxa, familia saltsa" ekintza sorta antolatu du. Ekimenaren helburua haurrei hainbat familia moten berri ematea da.

Intxaurrondo ikastolak gai zehatz batekin lotutako jarduerak antolatzen ditu ikasturtero. Aurten familia motak ezagutarazi nahian ari dira: guraso bakarreko familiak, harrera familiak, homosexualen osatutakoak... Beroa elkarteak —Gipuzkoako Harrera Familien elkarteak— hilaren 25a bitartean tailerrak egiten ari da ikastolan. Elkarteko kide Itsaso Lartigue gizarte-hezitzailea eta Idoia Astigarraga psikologoa ipuinak,

puzzleak eta komikiak erabiltzen ari dira, haurrei familia ereduen berri emateko. Itsasok eta Idoiak esan digutenez, era honetako ekimenek berebiziko garrantzia dute: "Besteak beste, adopzioa edo inmigrazioaren eraginez, asko aldatzen ari dira familia ereduak. Hortaz, gaian sakontzea funtsezkoa da". Haurren galderak entzunda, sentsibilizazio kanpainaren beharra igartzen omen da: "Adopzioaren eta banandutako bikoteen berri badute, baina harrera familiei edo homosexualen osatutako familiei buruz ezer gutxi dakite. Horiek guztiak existitzen direla, eta onartu behar direla barneratu behar dute".

Bestalde, Itsasok eta Idoiak nabarmendu digutenez, irakasleei ere ondo datorkie familia



ereduei buruzko informazioa. "Adibidez, gero eta normalagoa da ikasgeletan adopzioan hartutako haurrak izatea". Ikasmaterialaren arloan ere lan asko dago egiteko, Beroa-ko kideen ustez. "Testu liburu gehienetan, aitak, amak eta seme-alabek osatzen dituzte familiak. Harrera haurrak, adibidez, ez dira ikuspegi horrekin bat etorriko. Joera hori aldatu behar da".


Haur eta familientzako jarduerak

Abendua hasiera bitartean, tailerrekin batera, beste ekintza batzuk izango dira Intxaurrondo ikastolan. Hilaren 19an, ostirala, "Kintxo barrilete eta bere familia" ipuin musikala emango da, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako neska-mutilentzat. Asteartean, hilak 23, familiei zuzendutako "Secretos y mentiras" filma eskainiko da. Pelikulak

Tailerrak gaztetxean

Intxaurrondoko Letaman gaztetxean malabar, txalaparta eta bertsoari buruzko tailerrak antolatu dituzte. Horietako batean parte hartu nahi duenak gaztetxean bertan (Intxaurrondo kalea 55) izena eman edo letaman@gaztesarea.net helbidera mezua bidali behar du.

adopzio eta familia harremanei buruz dihardu. Emanaldia- ren ondoren, solasaldia izango da, Xabier Urmeneta psikologoak zuzenduta. Abenduaren 2an bukatuko da "Hau martxa, familia saltsa" ekimena. Egun horretan, goizez, Pirritx eta Porrotxen "Patata patata" ikuskizuna izango da. Arratsaldean, berriz, merienda izango da haur eta gurasoentzat.



Zurrumuru

Kioskoa - News Stand - Edicola - Kiosko - Budka -
Kiosk - Söluturm - Quiosc - Kiosque

Bretxa merkataritzagunea - Bulebarra z/g
20003 Donostia. Tel: 943 427977



San Telmo
Goilarea

Pintxoak, Kaxuelak,
Miniatura Sukaldaritza
eta Platerekoa

Abuztuaren 31. kalea • 20003 DONOSTIA